SINATZAILEA
Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONOZ
2026/09/11

SINATZAILEA
La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/09/11

**Basaburuko Udala**
**CIF P 3104900 J**
**31866-Jauntsarats (Nafarroa)**

# 2026ko UZTAILAREN 29AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2026ko uztailaren 29an arratsaldeko 19:00tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udalidazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Mª Mar Ansorena, Mikaela Elizalde, Alaia Etayo eta Javier Auza.

BERTARATU EZ DIRENAK: Iker Isiegas.

Bertaratu da baita ere Imanol Biurrarena Udabe Beramendiko kontzejuko alkatea.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

## GAI ZERRENDA

### 1.- Aurreko aktaren onespena.

Ekaineko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena, inork eragozpenik agertu ez duenez.

### 2.- Alkate ebazpenak.

Ondoren zehazten diren alkate ebazpena onartu ditu alkateak azkeneko hilabete honetan:

-2026/ 87 alkate ebazpena Berueteko Kornieta mendian estazio termo plubiometrikoa jartzeko obragatik EIOZ ordaintzeko salbuespen eskaera onartzea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 168. artikuluaren araber, obra hidraulikotzat hartzen delako egin beharreko jarduketa.

-2026/88 alkate ebazpena obra baimena onartuz Javier Ignacio Beunza Larumberi Ihabengo 3. Poligonoko 2. Lursaileko biltegia handitzeko.

SINATZAILEA
Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONOZ
2026/09/11

SINATZAILEA
La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/09/11

-2026/89 alkate ebazpena obra baimena onartuz ere Felix Beunza Larumberi Ihabengo 3. Poligonoko 3. Lursaileko biltegia haunditzeko.

-2026/90 alkate ebazpena obra baimena onartuz Marc Fernandezi Berueteko 11. Poligonoko 43. Lursaileko komuna eta sukaldea berritu eta hainbat leiho aldatzeko.

-2026/91 alkate ebazpena Jaunsarasko 5. Poligonoko 10. Lursaileko etxebizitzan leihoak aldatu eta kontraleihoak jartzeko baimena onartuz Jose Luis Diezi.

-2026/92 alkate ebazpena non onartu zen Oier Legarra Beunza Basaburuko Udaleko zerbitzu anitzetako langilea C mailara pasatzea barne promozio bidezko prozeduraren ondorioz.

-2026/93 alkate ebazpena baimena emanaz Osasuna Fundazioari Jaunsaratsen dagoen udal polikiroldegia eta bertan dauden dutxak erabiltzeko astearteetan 16;15etatik 17:45etara 2026-2027 ikasturtean zehar, futboleko entrenamendu klaseak egiteko

-2026/94 alkate ebazpena esleituz Jaunsaratseko Oihanzabal eskolako inguratzaile termikoaren obra behinbehinean Abilita Construcción y Rehabilitación SL enpresari ), 251.205,24 eurotan BEZ kanpo.

-2026/95 alkate ebazpena Jaunsaratsko 1 helbidean dauden bajeren jabetasun elkargoko zorra onartzea (1200 euro) eta zor hori ordaintzea.

-2026/96 alkate ebazpena onartuz Arga Argapasa enpresak aurkeztutako aurrekontua Jaunsaratsen dagoen eguneko egoitzako kanpoko itxidura egiteko materiala erosteko, 1.463,22 euroko aurrekontua BEZ kanpokoa.

-2026/97 alkate ebazpena baimena emanaz Summer Caravanning AIE enpresari, Apeztegiberriko eraikinaren bigarren pisuko gela erabiltzeko abuztuaren 26, 27, 28 eta 31ean, Ihabengo aisialdi gunean grabatu behar duten filmaren kokaleku lagungarri bezala erabiltzeko.

-2026/98 alkate ebazpena baimena emanaz Summer Caravanning AIE enpresari, Ihabengo Pasarrieta eremuan dagioen aisialdi gunea (3 poligonoko 44, 250 eta 251 lursailak) erabiltzeko abuztuaren 26, 27, 28 eta 31ean, Ihabengo aisialdi gunean grabatu behar duten pelikula baten filmatze lanak burutzeko.

-2026/99 alkate ebazpena onartuz Mª Yolanda Moreno Garciak aurkeztutako aitorpen arduratsua eta memoria teknikoa, Igoako 9. Poligonoko 318. Lursailean dagoen etxebizitzaren teilatuan 24 eguzki plaka jartzeko.

- 2026/100 alkate ebazpena onartuz Jose Ignacio Ansorena Ilarreguiri baimena ematea Aizarotz eta Beramendi arteko udal saretik ura lotura egiteko Itsasoko 4. Poligonoko 429. Lursailetik.

-2026/101 alkate ebazpena onartuz Joseba Ekisoain Torrecillak aurkeztutako aitorpen arduratsua eta aurrekontua Ihabengo 3. Poligonoko 325. Lursailean dagoen eraikinaren teilatua berritzeko



BASABURUA
Egiaztapen-aseguru kodea: MDCA AA7Y 7ARU DMEW NTPA
**2026-07-29ko akta - SEFYCU 378946**
Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan https://basaburua.sedipualba.es/

SINATZAILEA
Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONOZ
2026/09/11
SINATZAILEA
La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/09/11

-2026/102 alkate ebazpena onartuz Aizarotzko 10. Poligonoko 17 eta 35. Lursailetan AIT aldatzeko obra baimena I de Redes Iberdrolari.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain arteko alkate ebazpenak.

**<u>3.- Eraikinak zaharberritzeko diru laguntzak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa. Hasierako onespena</u>**

Alkateak azaltzen du aurreko batzarrean erabaki zela hurrengo batzarrean gaia aztertzea eta bileran Ogasun Batzordeko lehendakaria den Mikaela Elizalde egonik harek hartzen du hitza eta azaltzen ditu ordenantzaren aldaketen nondik norakoak.
Azaltzen du diru laguntza barnean sartzeko aukera bezala batzordean erabaki dela errentarako bideratutako etxebizitzen obrak sartzea beti ere errenta hau ohiko errenta bada, ez errenta turistikoa. Hortaz hauek ere izango dute %2ko diru laguntza eskatzeko eskubidea.
Hortaz bildutakoek ikusita Nafarroako Tokiko Administrazioko 6/1990 Foru Legearen 325 artikuluak arautzen duena non adierazten den "*Tokiko erregelamenduak eta ordenantzak honako prozedura honi jarraituz onetsiko dira:*

*a) Toki entitateko osoko bilkurak hasierako onespena ematea.*

*b) Onespen-erabakia jendaurrean edukitzea gutxieneko epean _hogeita hamar egunean_ Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta entitateko iragarki oholean iragarkia jarri ondotik, herritarrek eta bidezko interesa dutenek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.*

*c) Aurkezten diren erreklamazio, kexa edo oharrak ebaztea, eta a) atalean aipatu den organoak behin betiko onespena ematea.*

*Dena dela, hasierako onespena behin betiko bilakatuko da, baldin eta erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten ez bada. Kasu horretan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hori, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.*

*2. Herri ondasunen aprobetxamendua arautzen duten ordenantzak onesteko, beharrezkoa da korporazioa osatzen duten kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuak aldeko botoa ematea.*

*3. Erregelamendu eta ordenantzak aldatzeko egin beharreko tramiteak onespena emateko berberak izanen dira.*

*4. Jendaurrean jartzea ez da nahitaezkoa toki entitatearen beraren antolamenduan eragina duten erregelamenduak onesteko."*

Aho batez onartzen dute zaharberritzeko diru laguntzak arautzen duen ordenantzaren aldaketa funtsa izanik   diru laguntza jasotzeko obr

SINATZAILEA
Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONOZ
2026/09/11

SINATZAILEA
La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/09/11

**4.- Etxe hutsen gaineko zerga arautzen duen ordenantza. Behin betiko onespena.**

Ordenantza fiskal hau apirilaren 29ko batzarren onartu zen, 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioko Foru Legearen 325. Artikulua jarraituz Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen maiatzaren 19an, ekainaren 29 arteko epean egon da jende aurrean eta ez dira alegazioak aurkeztu, hortaz behin betiko onespena ematea dagokio ordenantzari.

Alkateak gogoratzen du ordenantza honen helburua dela egun dauden etxe hutsak alokairu merkatura bideratzeko karga fiskalak jartzea kontribuzioaren balorea kontutan hartuz. Orain etxe hutsen zerrenda egitea dagokio udalari.

**Hortaz bildutakoek aho batez behin betiko onespena ematen diote etxe hutsen gaineko zerga arautzen duen ordenantzari eta erabaki hau eta ordenantzaren testu osoa argitaratua izan dadin agintzen dute Nafarroako Aldizkari Ofizialean.**

**5.- 2026/1, 2026/2 eta 2026/3 aurrekontu aldaketak. Behin betiko onespena**.

Aurrekontu aldaketa hauek maiatzaren 27ko osoko bilkuran onartu ziren hasiera batez, aurrekontu aldaketa hauek ez ohiko kreditu bidezko aldaketa bezala onartu zirre, hots eta 1998/270 Foru Dekretuaren 35. Artikuluak arautzen duena jarraituz “Aparteko kredituak gastu-aurrekontuaren aldarazpenak dira eta beraien bitartez esleitzen da hurrengo ekitaldira arte ezin berandu daitekeen eta kredituri ez duen gastu espezifiko edo zehatz bat egiteko kreditua.

Kreditu-gehigarriak ere gastu-aurrekontuaren aldarazpenak dira. Aldarazpenotan aurreko inguruabarrak bateratzen dira egin beharreko gastuari begira, eta aurrikusitako kreditua ez da nahiko eta ezin da zabaldu.”

Aldaketa hauen zergatia udal idazkariak sinatutako txostenean islatu zen:

“ *Alde batetik Ihabengo aisialdi guneko inbertsioaren partida, aurrekontua ez zela sartu eta 34.000 euroko fakturak daudelakontabilizatzeko, hortaz ikusita tesorería gerakina dagoela, eta 1998/270 ForuDekretuaren 35. Artikuluak arautzen duena non adierazten den ez ohiko suplementuen partidak sortu ahal direla tesorería gerakina erabiliz. 2025eko kontuetan agertzen den tesorería gerakina 338.723 eurokoa da, hortaz ez legoke arazorik partida berria sortzeko.*

*Bigarren aurrekontua aldaketa, hots 2026/2, Baso babeslearen bigarren fasearen partidaren aurreikuspenak igotzeko behar da, aurrekontuan 70.000 euroko aurreikuspena onartu zen baina aldiz gastuak 93.000 eurora igo dira, hortaz eta aurreko aurrekontu aldaketaren kasuan bezala, gerakina erabiliz partidaren aurreikuspena igoko da, kreditu suplementu bidezko aurrekontu aldaketarekin.*

SINATZAILEA
Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONOZ
2026/09/11

SINATZAILEA
La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/09/11

*Bukatzeko eta 2026/3 aurrekontu aldaketa onartzeko, alkateak azaltzen du amortizazioaren partidaren aurreikuspenak ere gaindit u direla, Rural Kutxako amortizazioaren aurreikuspena 25.000 eurokoa izango zela aurreikusi zen, baina 27.000 eurokoa izan da hortaz, kasu honetan ere kreditu suplementu bidezko aurrekontu aldaketa erabiliz 1998/270 Foru Dekretuaren 35 artikulua jarraituz, tesorería gerakina erabiliko da amortizazioren partidaren aurreikuspenak igotzeko."*

Hortaz tramitazioari bukaera emateko behin betiko onespena ematea dagokio aurrekontu aldaketen espedienteari, hasierako onespeneko erabakia ekainaren 12ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenez eta 15 egun baliodunen epean alegazioak aurkeztu ez direnez.

**Hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute 2026/1, 2 eta 3 aurrekontu aldaketak behin betikoz onartzea 1998/270 Foru Dekretuaren 35. eta 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioko Foru Legearen 271 artikuluak jarraituz eta erabaki hau aurrekontu aldaketen testu xehetuarekin argitaratua izan dadin agintzen dute.**

## 6- Mozioak.

Ierriko udaletik bidalitako mozioa irakurtzen du alkateak ondokoa delarik berau gaztelania hutsean bidalitakoa:

"*Moción por la que se insta al Departamento de Educación y al Departamento de Derechos Sociales de Gobierno de Navarra a actuar ante posibles situaciones de desprotección de menores en la escuela Santa María de los Milagros, gestionada por la Fundación Maestro Ávila en el concejo de Argiñano.*

***Exposición de motivos:***

*La educación es un derecho fundamental y debe garantizar un entorno seguro, plural y respetuoso para todos los niños y niñas. Ante las informaciones recibidas sobre posibles prácticas en la escuela Santa María de los Milagros, gestionada por la Fundación Maestro Ávila en el concejo de Argiñano que podrían vulnerar estos principios, incluyendo la no escolarización de los menores, la transmisión de ideologías que promueven desigualdades de género, dogmas religiosos de carácter restrictivo, privación de la socialización con iguales fuera de la familia o doctrinas ultraconservadoras que podrían condicionar la formación crítica y la libertad de pensamiento, los ayuntamientos de Deierri y Gesalatz proponemos la aprobación de la siguiente moción.*

*Los Departamentos de Educación y de Derechos Sociales de Gobierno de Navarra tienen la responsabilidad de velar por el bien de la infancia y de garantizar, como organismos competentes a garantizar que todos los centros educativos cumplan con los estándares de legalidad, igualdad, diversidad y respeto a los derechos humanos.*

*Hasta la fecha, a través de información recibida por los ayuntamientos de Gesalatz y Deierri, se ha podido saber que:*

SINATZAILEA
Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONOZ
2026/09/11

SINATZAILEA
La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/09/11

- *En Argiñano no existe ningún centro educativo autorizado por el Departamento de Educación conforme a lo establecido por el Decreto Foral 251/1992, de 6 de julio (BON de 3 de agosto), por el que se establece el procedimiento para la autorización de centros docentes privados que impartan enseñanzas de régimen general no universitarias en la Comunidad Foral de Navarra. Fundación Maestro Ávila no ha solicitado autorización para la apertura y puesta en funcionamiento del centro. Pese a ello ha pasado de contar con 12 alumnos y alumnas en 2014 a 43 en 2021 (últimos datos que se disponen)*
- *En el curso 2016/17 y en el 2020/21 se realizaron dos visitas al centro (en la segunda visita los menores no se encontraban en el centro, por un caso de COVID) y se recogió la siguiente información:*
    - *Que las actividades educativas abarcaban todas las etapas educativas, desde Educación Infantil hasta Bachillerato, aunque el alumnado sólo se dividía en 2 grupos de edad y por sexos (En contra del marco normativo de igualdad y coeducación basado en la Ley Foral 17/2019, el Decreto Foral 72/2021 y la LOMLOE estatal, que exige que la educación sea coeducativa y sin discriminación por razón de sexo)*
    - *Que el horario lectivo es de menos de 4 horas diarias.*
    - *Que el centro no cuenta con sistema de calefacción.*
    - *No se acredita homologación del título educativo.*
    - *En las diferentes visitas se recoge que "al parecer los alumnos/as estaban matriculados en un centro de enseñanza no presencial en el extranjero" pero esto no llega a comprobarse mediante documentación oficial ni se acredita homologación del título educativo.*

- *Aunque según las funciones de la Inspección educativa que se regulan en el art. 3 del Decreto Foral 80/2008, de 30 de junio por el que se regula la organización y el funcionamiento de la inspección educativa del Departamento de Educación, es función de este departamento supervisar y controlar, desde el punto de vista pedagógico y organizativo, el funcionamiento de los centros educativos no universitarios, tanto de titularidad pública como privada, al no estar en centro registrado en la red de centro del Gobierno de Navarra esta supervisión no se ha llevado a cabo. Por lo tanto, no se han emitido dichos informes y no se disponen de datos oficiales del alumnado y del profesorado del mismo en la plataforma EDUCA ni se cuenta con censo de alumnado ACNEAE. Debido a esta situación, no han tenido que certificar la titulación necesaria de sus docentes ni tampoco han necesitado la aprobación, por parte del Departamento de Educación, de sus instalaciones, programaciones, calendario, horario y otros requisitos que la normativa establece.*

- *El 8 de mayo, en una comparecencia en el Parlamento de Navarra, el Consejero de Educación, Carlos Gimeno, admitió que una inspección realizada el 24 de febrero constató que el centro atiende a 55 alumnos de entre 3 y 18 años, organizados en cinco agrupamientos. Los responsables del centro reconocieron ante los inspectores que no disponen de resolución administrativa española que reconozca sus enseñanzas.*
- *Por su parte, la Consejera de Derechos Sociales, Carmen Maeztu, afirmó que la Subdirección de Infancia, Adolescencia y Familia recibió en febrero un oficio de la Sección de Menores de la Fiscalía de Navarra interesándose por posibles situaciones de desprotección. Sin embargo, la Fiscalía archivó el expediente ante la imposibilidad de identificar a los menores concretos: sin datos*

SINATZAILEA
Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONOZ
2026/09/11

SINATZAILEA
La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/09/11

*personales de los menores y sus familias, no puede iniciarse ningún proceso de valoración de desprotección.*

*Esta información, lejos de clarificar o tranquilizar, crean mayor desconcierto y preocupación, ya que ningún departamento parece querer involucrarse en asegurar que se cumplan los derechos de estos menores pese a haber indicadores de riesgo como la no escolarización o los expedientes abiertos en dos de las familias.*

*La Ley 15/2005, de 5 de diciembre, de Promoción, Atención y Protección a la Infancia y Adolescencia en su artículo 34 establece las diferentes situaciones en relación a las personas menores de edad que competen al Sistema de Protección en la Comunidad Foral de Navarra. En el artículo 50, de la citada ley, se determina que constituyen situaciones de desamparo la falta de escolarización habitual de la persona menor de edad.*

*Por otro lado, el instrumento para la valoración de las situaciones de desprotección infantil de la Comunidad Foral de Navarra determina como **negligencia hacia las necesidades formativas de los menores**, en un grado de **gravedad muy severa,** cuando el niño, niña o adolescente en edad de escolarización obligatoria (6-16 años) no está inscrito ni se prevé inscribirle en ningún centro educativo **oficial**. Este mismo instrumento dictamina que se trata de un **maltrato emocional** hacia los menores el **aislamiento** definido cómo: negar al niño, niña o adolescente las oportunidades para satisfacer sus necesidades de interactuar y comunicarse con iguales o con otras personas adultas dentro o fuera del hogar, esto incluye: confinar al niño, niña o adolescente o poner limitaciones no razonables sobre su libertad de movimiento en su entorno y poner limitaciones o restricciones no razonables respecto a la relación con iguales u otras personas adultas en la comunidad. Por último, define que las necesidades sociales de estos están cubiertas cuando se proporcionan interacción lúdica con iguales y personas **ajenas a la familia**, siendo esto último difícil de asegurar en un contexto como el de la Fundación Maestro Ávila.*

***Por todo ello, el Ayuntamiento de Basaburua***

1. *Reitera su compromiso con una educación libre de adoctrinamiento, que fomente la igualdad de género, el respeto a la diversidad y el pensamiento crítico.*

2. *Insta a los Departamentos de Educación y Derechos Sociales a explorar vías de actuación junto a la Fiscalía de Menores para poner fin a la situación de desprotección y falta de derechos que se está dando entre el alumnado del Centro*

3. *Insta al Departamento de Derechos Sociales del Gobierno de Navarra a evaluar posibles impactos en el bienestar emocional, psicológico y social de los niños y niñas no escolarizadas y matriculados/as en dicho centro.*

4. *Comunicará la aprobación de esta moción a los Ayuntamientos de Gesalatz y De Ierri."*

SINATZAILEA
Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONOZ
2026/09/11

SINATZAILEA
La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/09/11

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa eta Guesalatz eta Ierriko udaletara erabaki hau jakinaraztea agintzen dute.

**7. - Batzordeen informazioa.**

**Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.**
Eskolako inguratzaile termikoaren obra hasia dago eta ikasturte berria hasi baino lehen bukatuko dute.
Ttikiena haur eskolan 18 haur hasiko dira ikasturte berrian.

**8.- Informazio orokorra. Alkateak ematen du informazioa.**

Irailean jarriko da martxan adinduen eguneko egoitza, Imotz eta Ultzamako udaleko alkateekin hitz egin du eta onartu dute haien udalerrietako erabiltzaileek sortzen duten defizita "Open house" funtzionamendua Nafar Gobernuak onartu arte, udalek bere gain hartuko dutela eta horretarako hitzarmen bat sinatuko da. Falta da Atezko udalarekin hitz egitea.
Irailaren 19an Labea enpresak, emanaldi bat eskeiniko du Jauntsaratsen ariztien inguruan. Paseo bat burutuko da hariztien inguruan ornitologo baten laguntzarekin, harek azalduko ze txori ikusiko dituzte, haien kantuen zergatia eta beste.. ondoren luntxa egingo da eta bukatzeko "El roble" filma eskeiniko dute, musika eta mendietako soinuekin egindako filma.
Eskolan ere haurrei erakutsiko diete baso babeslearen inguruko bideko bat drone batekin filmatutakoa.

**9. Erregu-galderak**

Ez dago.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez eta arratsaldeko 19:50 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du